ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 11, asteazkena • 130 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Haurrentzako 2026ko Gabonetako postal lehiaketaren oinarriak

BDNS (Identif.): 939280.

Bat etorriz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/939280).

2026KO GABONETAKO POSTAL LEHIAKETAREN OINARRIAK

LEHENENGOA: DEFINIZIOA

Berantevillako Udalak herriko haur guztiak gonbidatzen ditu 2026eko Gabonetako postalen lehiaketan parte hartzera. Lehiaketaren helburua da Berantevillako haurren artean adierazpen artistikoa eta sormena sustatzea eta gure tradizioetan aktiboki parte hartzea.

BIGARRENA: PARTAIDEAK

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute hala nahi duten haur guztiek, udalerrian erroldatuta egon zein ez. Bi kategoria ezartzen dira:

1. kategoria: lau eta zazpi urte bitarteko haurrak.

2. kategoria: zortzi eta hamabi urte bitarteko haurrak.

HIRUGARRENA: GAIA

Postala Gabonetako gaiei buruzkoa izan beharko da. Postalaren edukia originala eta argitaratu gabea izan beharko da eta nahi den teknika erabil daiteke.

LAUGARRENA: FORMATUA

Postala A4 tamainakoa izan beharko da, eta euskarria edozein izan daiteke. Nahi den teknika erabil daiteke, bai eta nahi beste kolore ere.

Antolatzaileak eskubidea izango du indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen, oinarrizko eskubideak urratzen dituzten edo indarkeria, gorrotoa nahiz edozein diskriminazio mota sustatzen duten lanak baztertzeko.

BOSGARRENA: AURKEZPENA

Lanak 2026ko azaroaren 3tik 30era bitartean aurkeztu ahal izango dira Berantevillako Udalean eta Berantevillako udal liburutegian. Ezarritako tokietan eta epean aurkezten diren lanak bakarrik onartuko dira.

Interesdunek gutun azal itxi batean aurkeztu beharko dituzte lanak. Gutun azalaren kanpoaldean egilearen aukerako kode edo sinbolo bakarra egongo da. Gutun azal nagusiaren barruan honako hauek sartuko dira:

Postala, atzealdean kode edo sinbolo bera izango duena.

Beste gutun azal batean, lehiaketan parte hartzeko legezko tutoreen baimena jasotzen duen agiria sartuko da (1. eranskina). Eta kanpoaldean ere kodea edo sinboloa agertuko da.

Horrela, lanen anonimotasuna bermatzen da.

Parte hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketara.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

SEIGARRENA: SARIAK

Kategoria bakoitzerako sari bat ezarriko da:

1. kategoria (4-7 urte): 50,00 euroko bonua, Vitoria-Gasteizko Arlequín liburu dendan eskola materiala erosteko.

2. kategoria (8-12 urte): 50,00 euroko bonua, Vitoria-Gasteizko Arlequín liburu dendan eskola materiala erosteko.

Bi postalak Berantevillako Udalak erabiliko ditu Gabonak zoriontzeko.

ZAZPIGARRENA: EPAIMAHAIA

Udalbatzaz kanpoko kideek osatuko dute epaimahaia, eta erakundeak izendatuko ditu. Epaimahaiak bidalitako aktan jasoko dira epaimahaiari buruzko datuak.

Berantevillako Udaleko alkatea epaimahaiko idazkaria izango da, hitzik eta botorik gabe, eta epaiaren fede emango du.

2026ko abenduaren 4an emango du epaia epaimahaiak, eta apelaezina izango da. Udalaren web orriaren eta sare sozialen bidez emango da epaiaren berri, eta saridunei posta elektronikoz edo telefono deien bidez ere jakinaraziko zaie.

ZORTZIGARRENA: BALIOESPEN IRIZPIDEAK

Irizpide hauen arabera egingo da aurkeztutako lanen balioespena:

Lehiaketaren gaiarekiko lotura eta hura transmititzeko gaitasuna.

Lanaren sormena eta originaltasuna.

Ikusizko inpaktu eta inpaktu estetikoa.

BEDERATZIGARRENA: PARTE HARTZEN DUTEN LANEN TRATAMENDUA

Aurkeztutako lanak udalaren esku geratuko dira, eta hark irabazteko xederik gabe erabiltzeko, kopiatzeko edo zabaltzeko eskubide guztiak izango ditu, betiere egilea nor den aipatuta.

HAMARGARRENA: LANEN ERAUSKETA

Egindako lan guztiak Berantevillako elizan jarriko dira ikusgai, 2026ko abenduaren 18tik 2027ko urtarrilaren 7ra bitartean.

Lanak argitaratzeak ez die inolako ordainsari gehigarririk ekarriko egileei; izan ere, lanak lehiaketarako entregatuta, egileek doan lagatzen dizkiote jabetza intelektuala ustiatzeko eskubideak Berantevillako Udalari.

HAMAIKAGARRENA: JABETZA INTELEKTUALA

"Gabonetako postalak" lehiaketan parte hartzeak berekin dakar parte hartzaileek baimena ematea emandako datuak eta beren irudia Berantevillako Udalak egokitzat jotzen dituen hedabideetan erabiltzeko, "Gabonetako postalak" lehiaketaren publizitatea egiteko.

HAMABIGARRENA: OINARRIAK ONARTZEA

Lan bat aurkezteak berekin dakar lanak erakusteko eta erabiltzeko baimena ematea, eta onartzea oinarri hauetan jasotakoa, bai eta haietan jaso ez diren gaiei dagokienez epaimahaiak hartzen dituen erabakiak ere.

Berantevillako Udalak erabakiko du obra egokia den argitaratzeko, eta teknologikoki egokitu, zatitu eta argitaratzeko formatu egokira egokitu ahal izango du.

Aurkeztutako lanak Berantevillako Udalarenak baino ez dira izango, eta hark kopiatu ahal izango ditu, bai eta egokitzat jotzen duen publizitate erabilera eman ere, egilea aipatuta.

Udalak eskubidea du saritutako marrazkian aldaketaren bat egiteko, baldin eta marrazkia inprimatzeko zailtasun teknikoren bat badago, edo oinarri hauetan hasiera batean jasotzen ez den testu edo logotiporen bat sartzeko.

HAMAHIRUGARRENA: DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, jakinarazten da ezen deialdi honetan emandako datuak Berantevillako Udalak tratatuko dituela, eskaerak, idazkiak edo komunikazioak aurkezteari buruzko informazio pertsonala kudeatzeko.

Datuak gorde egingo dira haiek batu izanaren helbururako beharrezkoa den bitartean, eta lotutako eskubideren batek irauten duen bitartean gordeko dira, artxiboei buruzko legerian ezarritakoaren arabera, eta hirugarrenei laga ahal izango zaizkie soilik legeetan jasoriko kasuetan eta baldintzetan. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo tratamenduari mugak jartzeko edo aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izateko, Berantevillako Udalera jo behar da.

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa interesdunaren berariazko adostasunean eta lehiaketaren oinarri arautzaileen onarpenean oinarritzen da (DBEOren 6.1.a artikulua). Baimena kendu ahal izango da, eta horrek ez dio eragingo aurretik egindako tratamenduen zilegitasunari.

Datuak gorde egingo dira lehiaketa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean eta, behin amaituta, legeek edo nahitaez bete beharreko arauek ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko legez ezarritako epeetan, edo zuzenbidearen arabera agintari eskudunaren aginduz hala eskatzen denean.

Bildutako datuak beharrezkoak dira lehiaketa kudeatzeko, lehiakideekin harremanetan jartzeko eta saria emateko. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak hartzeko, ez eta pertsonen profilak egiteko ere.

Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, ezta hirugarren herrialdeei edo nazioarteko erakundeei ere. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eta tratamenduari mugak jartzeko edo aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira, Berantevillako Udalari sinatutako eskaera idatzi bat bidaliz, posta helbide honetara: Kale Nagusia 21, 01211 Berantevilla (Araba).

1. ERANSKINA
GABONETAKO POSTALEN LEHIAKETA

ADINGABEEK PARTE HARTZEKO BAIMENA

..... jaunak/andreak (NAN-zk.: .....) .....(e) ren (adina:.....) aita, ama edo tutorea den aldetik, GABONETAKO POSTAL LEHIAKETAN parte hartzeko baimena ematen dio, eta lehiaketa honen deialdirako oinarriak irakurri dituela eta onartzen dituela berresten du.

Berantevilla, 2026ko .....aren .....(a).

Sin.:

Berantevilla, 2026ko azaroaren 2a

Alkatea
ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.11 06:53:12 Z